



## JARRAIBIDEAK

### Unitate Funtzionala – KARDIOLOGIA

#### Dei egiteko beharrea bazaude, erabili gelako txirrina

#### GUREAN ZAUDEN BITARTEAN JARRAITU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Garbiketerako, gelan bertan komuna duzu, eta dutxa unitatean.
- Hemen zauden bitartean, egun osoan egindako txiza jaso behar duzu. Horretarako, zure ohearen letra bera duen ontzia erabili behar duzu. Ontzi hori bainugelan dago.
- Gelan txirrina ere baduzu. Laguntza behar duzun guztietan, deitu. Horrela, lana erraztuko diguzu, erizaintzako kontrolera ateraz gero baliteke-eta gure lana oztopatzea.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurrunak edo lur gabeak.
- 9:00etatik 13:00etara laguntzaileek unitatetik kanpo irten behar izango dute. Beharrezkoa izanez gero, paziente bakoitzeko pertsona bat egon daiteke. Debekatuta dago unitateko korredoretan geratzea.

#### MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA



- Egunero, igandeetan izan ezik.
- 10etatik 12:30era gutxi gorabehera.
- Medikua bisita egitera datorrenean, familiartekoak eta lagunak korridorera irtengo dira. Medikua, gelatik irteten denean, gaixotasunaren eboluzioaren berri emango die.

#### OTORDUAK

#### BISITAK



9:15ean Gosaria  
13:15ean Bazkaria  
17:15ean Merienda  
20:15ean Afaria

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.**  
Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke

#### BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde sanitarioen Euskal Sarea  
Red Vasca de organizaciones sanitarias libres de humo

Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute (datu gehiago behar baduzu, jar zaitez harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).



#### **TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

**Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.**



**Telebista-zerbitzua** ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora.

Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



#### **KAFETEGIA** **Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.**

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean.



**ALTA** ematen dizuten egunean, gela 14:30erako utzi beharko duzu. Ordu horretatik aurrera, atondoan itxaron beharko duzu alta-txostena jasotzeko, bai eta senideen zain egoteko ere.

**Gogorarazten dizugu ospitale osoan ISILTASUNA behar dugula.**

#### **Laguntza erlijiosa eta espiritual:**

- Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). Harrera erlijiosoaren ordutegia: egunero 8:30etik 20:30era. Mezen ordutegia: Igande eta jaiegunetan 11:00etan.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaiokete euren arimako maisuari.

**PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILEAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ).** Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:**- Asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.